



<b>Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen dekretuaren proiektua aldez aurretik onartzeko dena.</b>	<b>Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de Decreto por el que se regula la composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente, el procedimiento de designación de sus miembros, su organización y su funcionamiento.</b>
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez, Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautzen duen dekretuaren proiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman zen.	Por Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de fecha 8 de marzo de 2022, se resolvió ordenar el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto por el que se regulan la composición y el funcionamiento del Consejo Asesor de Medio Ambiente.
Xedapen Orokorrak Egiteko Proceduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikuluaren arabera, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontulta-izapideak egin aurretik.	El artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la Orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.
Horregatik guztiagatik, eta dekretu-proiektuaren testua ikusi ondoren, hau	Por todo lo anteriormente expuesto, visto el texto del proyecto de decreto elaborado,
<b>EBAZTEN DUT</b>	<b>RESUELVO</b>
<b>Lehena.-</b> Aldez aurretik onartzea Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua. Testua eranskinean dago.	<b>Primero.-</b> Aprobar con carácter previo el proyecto de Decreto por el que se regula la composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente, el procedimiento de designación de sus miembros, su organización y su funcionamiento que se recoge en el Anexo.



**Bigarrena.-** Aipatu proiektuaren prozedura egiten jarraitzeko agintza, prozedura horri hasiera eman zion Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 8ko Aginduan eta xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako izapideekin bat.

**Segundo.-** Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del referido proyecto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de fecha 8 de marzo de 2022, por la que se dio inicio a su procedimiento de elaboración, y en la Ley 8/2003 de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua  
Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

MARIA ARÁNZAZU TAPIA OTAEGI

Sinadura elektronikoa

## ERANSKINA

**XX/2022 Dekretu proiektua, xxxaren xx(e)ko, Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.**

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak Ingurumenerako Aholku Kontseilua arautzen dute, eta haren funtzieoak eta osaera ezartzen dituzte. Horrela, Kontseiluak, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta- eta lankidetza-organo gisa, helburutzat du laguntzea administrazio publikoek zein interes sozial eta ekonomikoen eta Unibertsitatearen ordezkari diren sektoreek ingurumen-politikak egin, kontsultatu eta jarraitzeko orduan parte har dezatela eta elkarren harremanetan egon daitezela. Kontseilua, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorean ingurumenaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago.

Gainera, 11. artikuluak Kontseiluaren funtzieoak ezartzen ditu, eta, adierazten duenez, Kontseiluak bere barne-funtzionamendurako arauak ezarriko ditu eta, kasua bada, sekzioak sortuko ditu, landu beharreko gaietako hala eskatzen dutenean. Gainera, Kontseiluaren txostenak, gomendioak eta proposamenak ez dira lotesleak izango.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 12. artikuluak Kontseiluaren osaera ezartzen du; hala ere, bigarren apartatuan adierazten duenez, araudiaren arabera zehaztuko dira osaera, kideak izendatzeko prozedura, eta antolatzeko eta funtzionatzeko oinarritzko arauak.

Aipatzekoa da abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ezabatu egiten duela Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren bidez sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiro Batzordea, eta haren zereginak Kontseiluaren eginkizunetan txertatzen ditu.

Bestalde, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 13. artikuluak lege horren xedari dagokionez Ingurumenerako Aholku Kontseiluari dagozkion eginkizunak ezartzen ditu.

Arau honek Naturzaintza-Natura Kontserbatzeko Aholku Kontseilua ezabatzen du, baina bere seigarren xedapen iragankorraren arabera: «Lege honek Ingurumeneko Aholku Batzordeari esleitzen dizkion funtzieoak Naturzaintza-Natura Kontserbatzeko Aholku Kontseiluak beteko ditu, erregelamendu bidez lehenengo organoaren osaera eta funtzieoak eguneratzen ez diren bitartean».

Azaldutakoaren arabera, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoa aplikatz, dekretu honek Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen ditu.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko .....aren ...[(e)a]n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren.

## XEDATZEN DUT:

### 1. artikulua.- Xedea

Dekretu honen xedea da Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzea, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoaren arabera.

### 2. artikulua.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera

#### 1.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluak kide hauek izango ditu:

- a) Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen saileko titularra, Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren presidentea izango dena.
- b) Eusko Legebiltzarra ordezkatuko duen pertsona bat.
- c) Eusko Jaurlartzaren sailburuorde maila duen eta ingurumenaren arloan eskumena duen pertsona bat, presidenteordea izango dena.
- d) Gutxienez zuzendari maila duen pertsona bat, Eusko Jaurlartzako sailetako arlo hauetako bakoitzaren ordezkari gisa: hezkuntza; industria; osasuna; lurralte-antolamendua; azpiegiturak eta garraioak; merkataritza eta turismoa; eta nekazaritza eta arrantza.
- e) Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundia ordezkatuko duen pertsona bat.
- f) Udalerrriak ordezkatuko dituzten hiru pertsona, Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak proposatuta.
- g) Ingurumen-sektoreetako herritarren elkarrekin edo mugimenduak ordezkatuko dituzten hiru pertsona.
- h) Kontsumizaileen eta erabiltzaileen erakundeak ordezkatuko dituen pertsona bat.
- i) Lehen sektoreko (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) erakundeak eta taldeak ordezkatuko dituzten hiru pertsona.
- j) Enpresa-erakundeak eta -taldeak ordezkatuko dituzten hiru pertsona.
- k) Erakunde sindikalak (nekazaritzako sindikatuak barne) ordezkatuko dituzten hiru pertsona.
- l) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zentroak ordezkatuko dituen pertsona bat.
- m) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateak ordezkatuko dituzten hiru pertsona.
- n) Ingurumenaren arloan aditua den eta prestigio handia duen pertsona bat.
- o) Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ordezkatuko duen pertsona bat.

#### 2.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluko kide bakoitzarentzat ordezko bat izendatuko da, titularra ordezteko hura ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo justifikatutako beste arrazoiren bat dagoenean.

Artikulu honetako 1 c) apartatuan aurreikusitako kasuan, ordezko pertsonak ingurumenaren arloan eskumena duen sailburuordeari dagozkion eginkizunak baino ez ditu beteko Aholku Kontseiluko kide gisa; ez du presidenteorde gisa jardungo, ez eta presidentearen ordezko gisa ere.

3.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluko kideak eta horien ordezkoak Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumena duen saileko titularrak izendatuko ditu, artikulu honetako lehen apartatuan aipatutako erakundeek proposatuta.

4.- Kideak/kideek erakunde-talde bat ordezkatu behar duenean/dutenean, Ingurumenerako Aholku Kontseiluko idazkariak jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa duten guztiak deituko ditu, dagokien kidea/kideak proposa dezaten/ditzaten.

5.- Artikulu honetako lehen apartatuko n) letran aipatzen den pertsona Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen saileko titularrak izendatuko du zuzenean.

6.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluko kideek beren izendapena proposatu zuten erakundeek proposatuta utziko dute kargua.

### 3. artikulua.- Antolamendua

1.- Eusko Jaurlartzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa zuzendariak edo, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzan gerta daitezkeen administrazio-berrantolaketen ondorioz haren ordez arituko denak beteko ditu Ingurumenerako Aholku Kontseiluko idazkarilank; hitza izango du, baina botoa ez.

2.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluari gaiak eta dokumentazioa prestatzeko laguntza teknikoa ematea aurreko apartatuan aipatutako zuzendaritzari dagokio.

3.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluak sekzioak sortzea adostu ahalko du, landu beharreko gaietako hala eskatzen dutenean.

### 4. artikulua.- Funtzionamendua

1.- Ingurumenerako Aholku Kontseilua urtean gutxienez bi aldiz bilduko da, presidenteak deialdia egin ondoren, eta bere eginkizunak betetzeko behar den guztietan.

2.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluak, presidentearen bitartez, aztertuko diren gaiekin zerikusia duten funtzionario espezialistik egotea eskatu ahal izango du, beren aholkularitza eman dezaten. Gainera, eztabaidatuko den gaiak hala eskatzen duenean, bigarren artikuluko lehen apartatuan aipatu ez diren Eusko Jaurlartzako sailetako ordezkarriak egotea eska dezake, bai eta apartatu horretan aipatutako administrazio publiko, erakunde eta kolektiboak, Kontseiluan ordezkaritza zuzena ez dutenak, ere.

3.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluak, presidenteak proposatuta, bere barne-funtzionamenduko arauak onartuko ditu.

Barne-funtzionamenduko arau horietan aurreikusi ez den guzirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoetarako xedatutakoa aplikatuko da.

4.- Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren bileretara joateak dietak jasotzeko eskubidea eman dezake, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren V. kapituluan ezarritakoaren arabera.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 10eko 199/2000 Dekretua indargabetuta gelditzen da.

#### **AZKEN XEDAPENAK.**

Lehena.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari Dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko baimena ematen zaio.

Bigarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## ANEXO

### **Proyecto de Decreto xx/2022, de x de xxxx, por el que se regula la composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente, el procedimiento de designación de sus miembros, su organización y su funcionamiento.**

La Ley 10/2021, de 9 de diciembre de Administración Ambiental de Euskadi, regulan el Consejo Asesor de Medio Ambiente, estableciendo sus funciones y su composición. De este modo, el Consejo se configura como un órgano consultivo y de cooperación de la Comunidad Autónoma del País Vasco que tiene como finalidad favorecer la relación y participación de las administraciones públicas y los sectores representativos de intereses sociales, económicos y de la universidad en la elaboración, consulta y seguimiento de las políticas ambientales. El Consejo, añade la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, está adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Además, el artículo 11 establece las funciones del Consejo y señala que el mismo adoptará sus normas de funcionamiento interno y creará, en su caso, secciones, cuando así lo requiera la naturaleza de los asuntos a tratar, no teniendo sus informes, recomendaciones y propuestas carácter vinculante.

El artículo 12 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, establece la composición del Consejo sin perjuicio de que en su apartado segundo señale que reglamentariamente se detallará dicha composición, el procedimiento de designación de sus miembros y sus reglas básicas de organización y funcionamiento.

Es relevante señalar que la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, procede a suprimir la Comisión Ambiental del País Vasco creada por la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, integrando sus funciones en las propias del Consejo.

Por su parte, el artículo 13 de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi, establece las funciones que en relación con el objeto de dicha ley corresponden al Consejo Asesor de Medio Ambiente.

Esta norma suprime el Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza del País Vasco-Naturzaintza, aunque la Disposición Transitoria Sexta señala que “las funciones que la presente ley atribuye al Consejo Asesor de Medio Ambiente serán ejercidas por el Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza-Naturzaintza, en tanto no se proceda reglamentariamente a la actualización de la composición y funciones del primer órgano”.

De acuerdo con lo expuesto, y en aplicación de lo dispuesto en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, el presente decreto procede a regular la composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente, el procedimiento de designación de sus miembros, su organización y su funcionamiento.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día xx de xx de 2022

**DISPONGO:**

**Artículo 1.- Objeto**

El presente Decreto tiene por objeto regular la composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente, el procedimiento de designación de sus miembros, su organización y su funcionamiento, de conformidad con lo que se establece en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.

**Artículo 2.- Composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente**

1.- El Consejo Asesor de Medio Ambiente estará compuesto por los siguientes miembros:

- a) La persona que sea titular del Departamento competente en materia de medio ambiente del Gobierno Vasco, que presidirá el Consejo Asesor de Medio Ambiente.
- b) Una persona en representación del Parlamento Vasco.
- c) Una persona con rango de Viceconsejero o Viceconsejera del Gobierno Vasco competente en materia de medio ambiente, que actuará como Vicepresidente o Vicepresidenta.
- d) Una persona con rango mínimo de Director o Directora en representación de cada una de las siguientes áreas pertenecientes a los departamentos del Gobierno Vasco: educación; industria; salud; ordenación del territorio; infraestructuras y transportes; comercio y turismo; y agricultura y pesca.
- e) Una persona en representación de la Diputación Foral de cada Territorio Histórico.
- f) Tres personas en representación de los municipios, a propuesta de la Asociación de Municipios Vascos-Eudel.
- g) Tres personas en representación de las asociaciones o movimientos ciudadanos representativos de sectores ambientales.
- h) Una persona en representación de las organizaciones de personas consumidoras y usuarios.
- i) Tres personas en representación de las organizaciones y agrupaciones del sector primario (agrícola, ganadero y forestal).
- j) Tres personas en representación de las organizaciones y agrupaciones empresariales.
- k) Tres personas en representación de las organizaciones sindicales, incluyendo los sindicatos agrarios.
- l) Una persona en representación de los centros de la Red Vasca de Ciencia y Tecnología.

- m) Tres personas en representación de las universidades con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- n) Una persona experta de reconocido prestigio en materia de medio ambiente.
- o) Una persona en representación del Consejo de la Juventud de Euskadi.

2.- Para cada uno de los miembros del Consejo Asesor de Medio Ambiente se designará un suplente que sustituirá a la persona que sea titular en los casos de ausencia, enfermedad u otra causa justificada.

En el supuesto previsto en el apartado 1 c) de este artículo, la persona designada como suplente ejercerá únicamente las funciones que le corresponden al Viceconsejero o Viceconsejera competente en materia de medio ambiente como vocal del Consejo Asesor, sin actuar como Vicepresidente o Vicepresidenta ni suplir al Presidente o Presidenta.

3.- Los miembros del Consejo Asesor de Medio Ambiente y sus suplentes serán nombrados por la persona titular del Departamento competente en materia de medio ambiente del Gobierno Vasco a propuesta de las entidades y organizaciones referidas en el apartado primero de este artículo.

4.- Cuando el o la vocal o vocales deban representar a un grupo de entidades, el Secretario o Secretaria del Consejo Asesor de Medio Ambiente convocará a todas aquellas cuyo ámbito de actuación sea toda la Comunidad Autónoma del País Vasco para que procedan a proponer el o la vocal o vocales que les corresponda.

5.- La designación de la persona a la que se refiere la letra n) del apartado primero de este artículo, se realizará directamente por la persona titular del Departamento competente en materia de medio ambiente del Gobierno Vasco.

6.- Los miembros del Consejo Asesor de Medio Ambiente cesarán a propuesta de las entidades y organizaciones que propusieron su nombramiento.

### Artículo 3.- Organización

1.- Ejercerá las funciones de Secretario o Secretaria del Consejo Asesor de Medio Ambiente, con voz pero sin voto, la directora o el director de patrimonio natural y cambio climático del Gobierno Vasco o la persona que le sustituya como consecuencia, en su caso, de las reorganizaciones administrativas que se produzcan en el seno de Gobierno Vasco.

2.- El apoyo técnico al Consejo Asesor de Medio Ambiente en lo relativo a la preparación de asuntos y documentación, corresponderá a la dirección citada en el apartado anterior.

3.- El Consejo Asesor de Medio Ambiente podrá acordar la constitución de secciones cuando así lo requieran los asuntos a tratar.

### Artículo 4.- Funcionamiento

1.- El Consejo Asesor del Medio Ambiente se reunirá, previa convocatoria de su Presidente o Presidenta, un mínimo de dos veces al año, y cuando lo exija el cumplimiento de sus funciones.

2.- El Consejo Asesor de Medio Ambiente, a través de su Presidente o Presidenta , podrá recabar la presencia de funcionarios y funcionarias especialistas en relación con los temas a tratar, al objeto de prestar su asesoramiento, así como solicitar cuando el asunto a debatir lo requiera, la presencia de representantes de los departamentos del Gobierno Vasco, no incluidos en el apartado primero del artículo segundo, así como de las administraciones públicas, entidades y colectivos, mencionados en dicho apartado, que no ostenten una representación directa en el Consejo.

3.- El Consejo Asesor de Medio Ambiente, a propuesta de su Presidente o Presidenta, procederá a la aprobación de sus normas de funcionamiento interno.

En todo lo no previsto en dichas normas de funcionamiento interno será de aplicación lo establecido para los órganos colegiados en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

4.- La asistencia a las reuniones del Consejo Asesor de Medio Ambiente podrá dar derecho a la percepción de dietas, de conformidad con lo establecido en el Capítulo V del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 199/2000, de 10 de octubre, por el que se regulan la composición y funcionamiento del Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## DISPOSICIONES FINALES.

Primera. - Se autoriza al Consejero o Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto.

Segunda. - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.